



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN



Ikasturteko memoria 2007-2008



Aurkibidea

| | |
|---------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| 1. Sarrera eta aipamen historikoa | 4 |
| 2. Gradu ikasketak | 6 |
| – Irakasle ikasketak | |
| – Psikopedagogia | |
| – Giza eta gizarte zientziak | |
| 3. Formazio iraunkorra eta enpresa eta erakundeei eskainitako zerbitzuak | 12 |
| – Graduondoak | |
| – Prestakuntza pedagogikoan unibertsitate aditu titulua | |
| – Euskal kulturgintzaren transmisioan unibertsitate aditu titulua | |
| – Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua | |
| – Formazio iraunkorra eta enpresa eta erakundeei eskainitako zerbitzuak | |
| – Kooperatibismoaren gaineko formazio saioak | |
| – HAEE-IVAP | |
| – Hizkuntza proiektuen aholkulariak formatzeko ikastaroa | |
| – Berrikuntza metodologikoan formakuntza | |
| 4. Ikerketa | 15 |
| – Ikerketa proiektuak | |
| 5. Institutuak | 17 |
| – HEZI | |
| – LANKI | |
| 6. Internazionalizazioa | 20 |
| 7. Ekintza ez akademikoak | 21 |
| – Literatura astea | |
| – Kirol zerbitzua | |
| 8. Euskara Huhezin | 23 |
| 9. Erakundeko kudeaketa orokorra eta zerbitzuak | 25 |
| – Administrazioa eta zerbitzu orokorrak | |
| – Gestio organoak | |
| – Zuzendaritza Kontseilua | |
| – Errektore Kontseilua | |
| 10. Enpresa eta erakunde laguntzaileak | 26 |

1. Sarrera eta aipamen historikoa

Oporoa izan da 2007-2008 ikasturtea fakultatean arlo guztietan.

Arlo akademikoari dagokionez, ikasle kopuruak gora egin du ikasketa guztietan, bai diplomatura eta lizentziaturan eta bai gradu-ondokoetan ere. Aipatzekoak dira, hala ere, bi atal, igoera bereziki handia izan baita Irakasle Ikasketetan, eta, beste alde batetik Euskal Kulturgintzaren Transmisioa gradu-ondoa, lehen aldiz eskaini duguna, arrakastatsua izan da izena eman duen jende kopuruari erreparatzen badiogu.

Urtero egin ohi dugun bezala, ikasturte honetan ere hainbat jardunaldi eta bilera antolatu ditugu. Batzuk lehengo haririk etorritakoak, baina izan da berrikuntzarik ere. Aurreko urteetako tradizioari jarraituz, esaterako, Komunikaldiak izan ditugu, "Etorkizuneko komunikatzaileak" gaiaren inguruan, eta X. Literatur Astearen "Poesia PlayStationaren belaunaldian" izan genuen mintzagai.

Arestian aipatu dugun legez, baina, izan da berrikuntzarik, eta, adibidez, Psikologiaren inguruko jardunaldia antolatu genuen "Hezkuntzari begirada psikologiaren eskutik" izenburupean; Hezkuntza Fisikoaren inguruko jardunaldia ere aurkeztu genuen, "Hezkuntzarik ez heziketa fisikorik gabe" gaia ardatz hartuta, eta, bestalde, Ekonomia Solidarioaz I. Biltzarra ere eratu zen HUHEZIn.

Horrez gain, nazioarteko bi mintegi ere egin dira gurean, batak izenburu zuen Zientziaren irakaskuntza eskoletan, proiektuetan oinarritutako irakaskuntzaren bidez", eta bestea Lifepace Learning proiektuaren ingurukoa izan da.

Aipamen berezia merezi du HUHEZINEMAK, Ikus-entzunezko 4. mailako ikasleek eta irakasleek antolaturiko zinemaldiak, alegia. Arrakastatsua izan da lehen edizioa, eta, guztira, 41 film labor eta dokumental aurkeztu ziren lehiaketan.

Internazionalizazioa geure egin dugu, eta, horren erakusle, zazpi ikasle izango ditugu Erasmus egonaldiak egiten fakultatean, lehenengoz, nazioarteko ikastaroetan. Bestalde, NETT (Irakasleen Heziketa eta Prestakuntza Sarea) sarean sartu gara; sare hau Europar Batasuneko 20 herrialdeetako 32 hezkuntza fakultatek osatzen dute.

Eskuartearen duzun oroitzapen-idazkiak HUHEZIn 2007-2008 ikasturtean egindako beste hainbat konturen berri ere emango dizu. Adibide gisa, estatuko eta atzerriko hainbat irakasleren bisitak izan ditugu Valentzia, Irlanda eta Flandestik; HUHEZiko doktorego programako lehen tesia aurkeztu da fakultatean "0-3 urte arteko haurraren garapena eta eskola" izenburuz...



Azkenik, ezin dut aipatu gabe utzi EMUNen X. Urteurreneko ekitaldian Fagor eta HUHEZI omendu dituztela, hamar urteko ibilbide honetan bidelagun izan naikitutze.

Aipamen historikoa Ikuspegi kronologikoa

1976. Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zen.

Ikastolek garai hartan zuten arazo larria (irakasle tituludun euskaldunik ez zen) konpondu guran, Hezibide Elkartek, Deba Goieneko hezkuntza kooperatibak batzen zituen elkartek, alegia, Eskoriatzako Irakasle Eskola sortu zuen. Hasiera hartan, Salamancako Unibertsitate Pontifizioaren gela moduan hasi zen eskolak ematen.

1978. Onespren ofiziala.

Hezkuntza Ministerioak onartu egin zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolaren ikasketa plana, aurrerantzean Bilboko Unibertsitateari (gero EHU-UPV) atxikita.

1979. Lehen promozioa.

39 irakasle irten ziren urte hartan, irakasle diplomatura eskuan.

1980. Irakasle Eskola, kooperatiba.

Bere ingurunean txertaturik, urrats logikoa izan zen eskola kooperatiba bihurtzea.

1981. Titulurik gabeko irakasleen 1. promozioa.

Ikastoletan edo herri eskoletan euskara irakasle titulu barik ari ziren 147 maisu-maistrak eskuratu zuten titulua urte hartan. Guztira titulurik bako 700 maisu-maistrak amaitu zituzten ikasketak Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

1984. Haurren gaineko dokumentazio zentroa.

Sei urte bitarteko haurren gaineko dokumentazioa biltzen, antolatzen eta zabaltzen hasi zen Eskola. Geroago, Jakingarria aldizkaria argitaratzen hasi zen, gai horren inguruan.

1985. Irakasleen birgaitze programa.

Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailarekin batera, lanean ari ziren irakasleak egunean jartzeko ikastaroak antolatzen hasi zen.

1988. Bideo didaktikoak.

Helburu didaktikoekin egindako bideo bilduma baten lehen alea ("Piti gaztagile") egin zen.



1990. Euskararen normalizazioa administrazioan.

Ikastaro bereziak antolatu ziren euskal administrazioari funtzionarioen hizkuntza eskakizunik jasoenak lantzeko.

1992. Testu liburugintzan.

Euskarazko irakaskuntzan testuliburuak behar zirela eta, dozena bat liburu argitaratu ziren.

1996. Hezkuntza Berezia.

Hezkuntza premia bereziak dituzten haurrei irakasteko espezialitatea sortu zen. Eskola ikasle urri zebilen garaian, ikasle asko erakarri zituen espezialitate honek.

1997. MUren Humanitate Fakultatea.

Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. **Humanitateak-Enpresa lizentzia ematen hasi zen.**

1999. Eraikin berria.

Hasierako eraikina txiki geratu zela eta, Gizabidea fundazioak alboko S. Viator eraikina (XVII. mendekoa) erosi zuen Humanitate Fakultatearentzat.

Lehen masterra.

"Enpresa Proiektuen Zuzendaritza" izeneko masterra sortu zen. 400 bat hautagai aurkeztu ziren, baina 20 bakarrik sartu ziren galbahe zorrotza igaro ostean.

2000. Psikopedagogia lizentzia.

Bigarren zikloko lizentzia da eta irakaskuntza eta gizarte ele-anizdunetan sor daitezkeen arazoei hobeto erantzuteko sortu zen. Lehen urtean 33 ikasle izan zituen.

2001. Ikasketak, on line.

Psikopedagogia ikasketak eta master bat sarean jarri ziren.

Humanitateak-Enpresako 1. promozioa ekainean irten zen.

Bi master berriren eskaintza.

Informaziorako eta komunikaziorako teknologien formazioan eta Hezkuntza Zuzendaritzan.

2002.

Psikopedagogia karreraren baitan **Esku-hartze Psikopedagogia** jarri zen martxan, 30en bat ikasleekin.

2003. AOI-PBL metodologia aplikatzen hasi zen sistematikoki 1. mailan, Haur Hezkuntzan oso-osorik eta bestelako espezialitateetan, ikasgai komunetan soilik.



Hezkuntza Fisikoa.

Irakasle Ikasketetako espezialitate berria hasi zen, 32 ikasleekin.

2004. Pertsona eta Talde Garapen Gestio Unitatea sortu zen.

Prestakuntza Pedagogikoa titulazioa ezarri zen.

Irakasle Balioaniza ikasketak eskaintzen hasi zen.

2005. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentzia sortu zen.

Karrera honen misioa da komunikatzaile integralak prestatzea. Lana edonon egiten dutela ere, gai izango dira erakunde horretako era guztietako komunikazio-beharrei erantzuteko. 36 ikasleekin jarri zen abian lehenengo maila.

Urte berean, **"Norbere garapena eta taldeen lidergoa"** izeneko aditu titulua ezarri zen.

2006. Irakasle Ikasketetan, Mendeberti proiektuaren 1. promozioa kaleratu zen.

"Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna XXI. mendean" ikastaroa eskaini zen.

Abian jarri ziren **Euskara Plana** eta **Multimedia gunea**.

2007. "Euskal Kulturgintzaren Transmisioan" graduondoa eskaini da.

HUHEZINEMAren lehen edizioa egin da.

HUHEZiko programako **lehen tesia aurkeztu da.**

2. Graduako ikasketak

Hezkuntza lerroa


2007-2008 ikasturtean 749 ikasle izan ditugu Hezkuntza lerro osoan. Irakasle Ikasketetan, 655; eta Psikopedagogian, 109. 2006-2007 matrikularekin alderatuz, guztira 56 ikasle gehiago. Matrikulazio datuen arabera, esan daiteke Irakasle Ikasketei esker Hezkuntza lerroak indartzen jarraitzen duela. Horren barnean, Haur Hezkuntza eta Hezkuntza Fisikoa espezialitateak dira ugariena: Irakasle Ikasketen %46,7 eta %25,3 hurrenez hurren. Egresatuei dagokionez, ikasturte honetan 205 ikaslek bukatu dituzte ikasketak, 180ek Irakasle Ikasketetan eta 25ek Psikopedagogian.

GRADUko titulazio berrien memoria egiten hasi gara, eta 2008-2009 ikasturtearen hasieran ANECARA eta UNIQUALera bidali behar ditugu Gradu berrien memoriak. Horixe da uneotan euskuartearen dugun erronkarik handiena. Dagoeneko badakigu Hezkuntza Ikasketetan bi titulazio izango direla: Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua. Unibertsitate mailako ikasketa berrien atarian gaude une honetan, eta, horren harira, hainbat forotan ari gara parte hartzen: Hezkuntza Lerroko Espainiako foroan eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako foroan.

Gradu eta Graduondoko ikasketak izango dira Unibertsitateko Titulazio berrietan, eta gure jarduerari dagokionez, aldaketa historikoa izango da Hezkuntza Lerroan. Batetik, Irakasle Ikasketek gainerako ikasketen maila akademiko bera izango dute, Graduoko ikasketak izango baitira, eta, bestetik, hiru urteko ikasketak izateko lau urtekoak izatera pasako dira. Horrek ahalbidetuko du, ikasketa plangintzari dagokionez, praktika garaia luzatzea, eta, beraz, praktikan oinarritutako formazioa areagotzea. Graduoko ikasketa berrien eraikuntzan irakasle talde handiak parte hartu du eta erantzuna oso emankorra izan da.

Hezkuntza lerroko ikasketen mapari dagokionez, erabaki hauek hartu dira HUHEZIn: Irakasle Graduoko bi titulu jarriko dira: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Horietako bakoitzaren barnean ibilbideak eskainiko dira, bakoitza 30 ECTSkoa. Haur Hezkuntzako titulazioak bi ibilbide izango ditu: bata HHkoa eta bestea Atzerriko Hizkuntzako. Lehen Hezkuntzako titulazioan, berriz, sei ibilbide diseinatuko dira: Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Fisikoa, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza, Entzumena eta Mintzaira eta Hezkuntza Artistikoa. Azken hori berrikuntza da gurean. Erabaki horiek hartzeko kontuan izan ditugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Foroak hobetsi dituen orientabideak.

Garatutako "Mendeberri" Hezkuntza Proiektua eta Graduoko ikasketak elkarrengandik gertu daudela konturatu gara. Horren



adierazle ditugu alderdi curricularrak, metodologikoak, antolaketari dagozkionak etab. Horiek guztiak birformulatu, osatu eta egokitu ditugu. Bestalde, ikasketa berriak eraikitzeke une hau aprobetxatu dugu asmo berriak gauzatzeko: zeharkako kompetentziak, hizkuntzak eta ICTak curriculumean zeharka integratzeko. Hori da, hain zuzen, aurrera begira dugun erronka garrantzitsuenetako bat.

Psikopedagogiako lizentziari dagokionez, momentu honetan behin betiko erabakirik hartu ez bada ere, badirudi Graduondoko ikasketak izango direla. Bestalde, badakigu, Bigarren Derrigorrezko Hezkuntzako Orientatzaile izateko Bigarren Hezkuntzako Masterrean ibilbide bat egin beharko dela. Ibilbide hori HUHEZIn jarriko dugu gainerako ibilbideekin batera (ikus Bigarren Hezkuntzako Masterra). Halere, oraingo Irakasle Ikasketetako egresatuek (Diplomatuek) ezingo lukete zuzenean matrikula egin, Graduondo honetan ez baitute 240 kredituko ikasketarik egin. Hori dela eta, Diplomaturako ikasleei aukera ematearren jarrai dezaten goranzko norabidean ikasten, erabaki dugu Psikopedagogia ikasketak iraunaraztea, bere horretan, 2.010. urtera arte.

Hezkuntza Proiektuari dagokionez, "Mendeberri" nabarmen gorpuztu da ikasturte honetan. Bilakaera horren adierazleak dira, adibidez, honako hauek: batetik, curriculumak hobetu egin dugu; beste alde batetik, hazi egin da berrietan aritzeko prestatu dugun irakasle-tutore kopurua; beste batetik, tutore-talde osoaren hausnarketan eta formazioan hobetu eta areagotu egin dugu; eta, azkenik, Hezkuntza Proiektua kudeatzeko antolakuntza eraldatu dugu.

Curriculumaren hobekuntzari dagokionez, "zeharkako kompetentziak" lantzen hasi gara 2. mailan, hirugarren mailako proiektuak egituratu eta gorpuztu egin dira eta bigarren mailako modulu batzuetan ICTak inoiz baino toki handiago hartu dute.

Irakasle-tutore berrien formazioaren alorrean, ahalegin handia egin da irakasle berriei haserako formazioa eskaintzen eta horien jarraipena egiten, behin modulua hasita dagoela. Tutore berrien hasierako formazioarako, ohi den bezala, HEZIK antolatu ditu oinarritzko ikastaroak, metodologia berrietan aritzeko; bestalde, moduluko koordinatzailearen esku gelditu da tutore hasi berrien jarraipena. Moduluko koordinatzailearen eginkizuna baita irakasle berrien tutoretza egitea ere.

Tutore talde osoaren hausnarketa eta formazioari dagokionez, tutorearen profileen eta eginkizunetan sakondu da. Horretarako, metodologia ezberdinetan tutorearen eginkizuna eta esku hartzea identifikatzen saiatu gara, eta, horren ondorioz, erabiltzen ditugun metodologiak hobetu ditugu.



Azkenik, Hezkuntza Proiektua kudeatzeko antolaketa ere egonkortu egin da. Aurtengo ikasturtean antolaketa indartu eta egituratu egin dugu: IKBTT (Hezkuntza Proiektuaren talde teknikoa) eta MKT (Moduluetakoko koordinatzaileen Mintegia) organoak, nagusiki. Horrek, modu positiboan eragin die Hezkuntza Proiektuaren koordinazioari eta koherentziari.

Irakasle ikasketak: lehen diplomatura

“Mendeberri” Hezkuntza Proiektua urratsez urrats inplementatu dugu Irakasle Ikasketetan. 2003-2004 ikasturtean lehen mailatik hasi ginen eta 2007-2008an hirugarren promozioak bukatu du. Eginiko ibilbideak aukera ematen digu gure Hezkuntza Proiektuaren emaitzak kontrastatzeko.

Ikasleen asetasun-mailak oso altua izaten jarraitzen du, eta urtetik urtera etengabeko hobekuntzak sartzen ari gara aipatutako koordinazioari esker eta ikasleen oharrei eta ekarpenei kasu eginez.

Irakasle Ikasketen espezialitatetara etorrira, Hezkuntza Fisikoko hirugarren promozioa izan da aurtengoa; eta Balioanitzeko lehendabizikoa promozioa. Esperientzia aberatsa izan da espezialitate hau inplementatzea eta “Balioanitzeko” aukera zabaltzea. Proiektu honek aukera bikaina eman digu beste zenbait erakunderekin elkarlanean aritzeko, Athlonekin eta Arizmendirekin, bereziki. Bestalde, eta espezialitate hau egitera datozen ikasle asko gizonezkoak direla kontuan izanik, parada eman digu irakasle lana gizonezkoena ere badela erakusteko, eta, noski, generoari dagokionez, baita gure ikasle taldea orekatzeko ere.

Curriculumari dagokionez, lanbide honen formazioan oso garrantzizkoak dira Kanpoko Praktikak. Hori dela eta, Hezkuntza Proiektuan toki nagusia dute eta bereziki zaindu dugu metodologia eta antolaketa. Bi ikasturtetan egiten dituzte praktikak ikasleek: 2. mailan eta 3. mailan. Bi praktika horiei funtzio berezitua eman zaie curriculumean. Bigarren mailako praktikan “kasuetan oinarritutako metodologia” erabili da, eta hirugarren mailako praktikei norabide berria eman zaie eta “proiektuetan oinarritutako metodologia” erabili dugu. Azken hori egonkortu nahi dugu aurtentzen, eta hori lortzearren, zenbait ekarpen egin dugu. Ikasleei proiektuen katalogoa eman zaie, eta, taldeka, ikastetxean adosten dute zein proiektu garatuko duten. Tutoreak (fakultatekoa eta eskolako) arduratuko dira ikaslea gidatzeaz.



Hartara, praktikak ez dira une puntuala formazioan; aitzitik, ikaskuntza prozesu luze batean txertatutako jarduera formatiboa da. Prozesu horretan hainbat formazio une daude: praktiken aurretik, bitartean eta ondoren. Ondorengo lana aipagarria da ikasleek beren arteko aurkezpenak egin baitituzte eta aukera paregabea izan da ikasitakoa elkartrukatzeko.

Berrikuntza da gure ildo nagusietako bat, eta esparru horretan kokatzen ditugu alderdi metodologikoan berritzen goazen alderdiak. Horietako bat dugu hirugarren mailako Proiektuetan Oinarritutako Metodologia eta honen baitan ikasleak erabiltzen ari diren tresna: lan-koadernoak. Tresna horrek bi funtzio nagusi betetzen ditu: ikasteko gunea da, hainbat rol betetzen dituzten hiru ikasleren arteko tresna delako eta tutorearekin egiten duten ikaste-prozesuari buruzko gogoetarik, eta, aldi berean, ebaluazio tresna ere bada. Modu horretara, tresna hau bihurtu da kompetentzia askotarikoen adierazle eta gidari. Bertan jasotako alderdien feedbacka jasotzen du ikasleak tutorearengandik eta era berean, ikasleak bertan jasotako defentsa egin behar du. Tresna honetan jasotakoak adierazten du ikasleak zer ikasi duen eta baita zein prozesu jarraitu duen ere.

Praktikak

2007-2008 ikasturtean 397 ikasle egin dituzte kanpoko praktikak, iaz baino 43 gehiagok. Atzerriko praktikei dagokionez, 3. mailako ikasleen %10ek egin dituzte praktikak atzerrian. Horietatik herenek Ingalaterran eta Galesen eta gainerakoek Hego Amerikan (Nikaraguan, Guatemalan eta Venezuelan). Zenbait alderdi azpimarratu nahi ditugu praktiken inguruan. Batetik, atzerriko praktikek ikasleengan duten eragin positiboa ikusirik, gure eskaintza gero eta zabalagoa izan behar du, eta horretan ari gara. Bestetik, Hego Amerikako praktikei dagokionez, hobeto antolatze ahaleginak egiten jarraitu behar dugula uste dugu. Hezkuntza Proiektuko eremu formatibo garrantzitsua dira praktikak, eta, beraz, arreta berezia izan dute eta izango dute Gradu berrietan ere: bai programazio aldetik (nola lotu moduluekin etab) eta baita antolaketa aldetik ere (ikasleekin eta irakasleekin harremana izan, praktika onak identifikatu gure hezkuntza sisteman, praktika onak identifikatu atzerriko eskoletan, gure eskolen proiektuetan eragin, proiektuak partitu, garapenean dauden herrialdeetako eskolekin proiektuak partitu etab.).

Ikasleen mugikortasuna

Irakasle Ikasketetako 2 ikasle joan dira Erasmus programaren barruan atzerriara ikastera, bata Norvegiara eta bestea Danimarkara.

⁷ Irakasle ikasketak 180 kreditu dauzkate eta Bigarren Hezkuntzako Graduondoa egiteko 240 kreditu egin behar dira.



Praktikak

Ikasleek, praktiketara joan aurretik, zenbait formazio saio izan dituzte psikopedagogoaren eginkizunak bete ahal izateko beharrezko ezagutzekin (profila, funtzioak...) eta konpetentziekin lotutakoak. Konpetentzien inguruko saioa entzute aktiboari buruzkoa izan da, eta ikasleek oso interesgarritzat jo dute. Horrez gainera, praktikak egiterako orduan, ikasleak aurreikusitako lan eremuen (orientazioa hezkuntza formalean eta hezkuntza ez-formalean, kulturartekotasuna, hizkuntzen kudeaketa eta berrikuntza) arabera banatu dira. Lan-eremu bakoitzean psikopedagogoaren lanaren ezaugarriak konpartitu dituzte ikasleek eta praktiketako txostena taldeka egin dute.

Eremu bakoitzean parte hartu duen ikasle kopurua ondorengoa da:

- Orientazioa hezkuntza formalean: 23 ikasle.
- Orientazioa hezkuntza ez formalean: 5 ikasle.
- Kulturartekotasunean: 3 ikasle.
- Hizkuntzen kudeaketan: 5 ikasle.
- Berrikuntzan: 2 ikasle.

Arestian egin den deskripzioa 1. mailako praktikei dagokie. Bigarren mailakoei dagokionez, ez da sailkapenik egiten talde lanik egin behar ez dutelako eta askok praktikak lotzen dituztelako Karrera Amaierako Proiektuarekin.

Hitzarmenak sinatu ditugu 18 erakunderekin eta erakundeko irakasleei ikasleen jarraipen estuago bat egitea eskatu diegu. Praktikak bukatu ostean, erakundeetako tutoreek ikasleen inguruko ebaluazio txosten bat bete behar izan dute.

Karrera Amaierako Proiektuak (KAP)

2007-2008 ikasturtean Karrera Amaierako Proiektuak aurkezteko hiru deialdi izan dira, eta guztira 24 proiektu aurkeztu dira.

Unibertitate ikasketen berrikuntza datorrela eta, ikasleek KAPa ahalik eta azkarren aurkez dezaten ahaleginak egiten ari gara. Horretarako, aurreko KAP uztailan aurkeztu duten ikasleek urtariletik izan dute HUHEZIKO tutorea.

Aurtengo proiektuetan hainbat gai jorratu dituzte: haur etorkinak, gurasoen partaidetza, hizkuntzak, aisialdia, ebaluazioa, teknologia eta didaktika, premia berezien arloa, adimen emozionala, atxikimendua eta eskola inklusiboa.

KAPa taldean egiteko aukera eman zaie ikasleei, betiere irizpide jakin batzuk jarraitu beharko dituztela argi utzi ondoren. Aukera

honetaz lau ikasle baliatu dira. Hau da, bi pertsonaz osatutako bi KAP izan ditugu.

Bukatzeko, azken ikasturteetan lizentziako ikasgai guztiak gaindituta eta KAP egiteko duten ikasleen jarraipena egin da. Aurreko ikasturtean bezalaxe etxera deitu zaie bukatzera animatu daitezen esateko.

Bekak Psikopedagogia lizentzian

Beken aukerak bereziki Deba Goieneko erakunde eta eskoletan ditugu finkatuta. Ikasle gehienak lanean daudela-eta, ahalegin handia egin behar izan dugu eskaera guztietarako pertsona bat aurkitzeko. Hartara, 2007-2008 ikasturtean sei ikasle aritu dira bekadun gisa lanean. Eta lan horietan egiten dituzten eginkizunek zerikusia dute Psikopedagogoaren curriculumarekin.

Giza eta gizarte zientziak

Honako hau izan zen 2007-2008 ikasturtean Giza Zientzietako ikasketen mapa:

- *Humanitateak Enpresa*-n (HUEN) 2. zikloko ikasketak burutu zituzten ikasleek: 3. mailan 10 matrikulatu ziren (euretatik 9 IKO-HUEN lizentzia bikoitza egiten ari ziren ikasleak) eta 4. mailan, berriz, 22 (horietatik 6 lizentzia bikoitza egiten ari ziren lagunak; gainerakoak, 8. promozioiko kideak).
- *Humanitateak Komunikazioa* ikasketei dagokionez, 4 lagun jardun zuten 4. maila ikasten.
- *Ikus-entzunezko Komunikazioa*:
 - IKOko 4. maila (ikasketa hauen lehen promozioa): 32 lagun.
 - 3. maila: 41 lagun (euretako 4 beste ikasketa batzuetatik IKOko 2. ziklora etorritakoak).
 - IKO 2: 33 lagun.
 - IKO 1: 34 lagun.
- Lizentzia bikoitzari dagokionez, administrazio-arazoak tarteko, azken aldiz egin zitzaizen eskaintza hori 2. mailako ikasleei (eurek espresuki aukera hori izatea galdegin zutelako), eta ondorengo ikasturteei begira bide hori zarratzea erabaki zen (berorren ordean Komunikazio Korporatiboko gradu-ondoko edo aditu tituluren bat jartzeko aukera aztertzeotan geratu ginen).
- Guztira 172 ikasle izan genituen, beraz, Giza Zientzien lerro osoan (140 IKOn eta 32 Humanitateetan).

Ikasturteak izan zituen ardatz nagusiei gagozkiela, hiru nabarmen daitezke beste guztien gainetik:

2. Graduko ikasketak



- 1) IKO eraikitzen amaitzea.
- 2) Mendeberrri IKOn ezartzeko prozesua + Formazio pedagogikoa (5 saio goiz osokoak).
- 3) Ikus-entzunezko Komunikazioa Gradu titulu europarraren diseinua.

- 1) laz IKOn zein InfoKom-en lehenengo bider eman dugu 4. maila, lauhileko bakoitzean proiektu berri garrantzitsu bana oinarri hartuta (film laburra eta HUHEZINEMA). Horrez gain, platorik praktikei ezinbesteko iritzita (eta HUHEZIn bertan platorik ez daukagunez) hitzarmena sinatu dugu Goienarekin 8.000 €-ren truke platoa eta teknikari bat baliatzeko klase-entzunezko. Ezin ahaztu, era berean, ikasketak indartzeko emaniko beste pauso bi:
 - a) irakasle berrien kontratazioa.
 - b) multimedia gunearen arautze eta antolaketa eta ikus-entzunezko tresneria erostea.

- 2) 07/08an urrats hauek egin dira Mendeberrri IKOn ezartzeko:
 - 2 eguneko **harrera plan berezia** 1. mailako ikasleei, metodologia aktiboen bidez ezagutu dezaten HUHEZI, bertako bazterrak eta arduradunak eta ikasketen konpetentziak eta soslai profesionala (Maider Egues etorri zen hizlari gonbidatu modura).

- Lehen lauhilekoan:

- 1. *mailan*: 4 ikasgairen (Komunikazioaren Teoria I, Komunikazio Grafikoa I, Historia, Idatzizko Komunikazioa eta Informazioa I) arteko proiektu komuna: paperezko aldizkari baten prestaketa.
- 2. *mailan*: hedabideetara bisitak: Goiena (hedabide lokalak), EITB Miramon (ikus-entzunezko fikzioa) eta EITB Bilbo (albistegiak).

- Bigarren lauhilekoan, diziplinarteko proiektu bi:

- 1. *mailan*, webgune espezializatu baten prestaketa 5 ikasgairen artean (Ingelesa I, Lengua, Idatzizko Komunikazioa eta Informazioa I, Komunikazioaren Teoria I eta Web 2.0).
- 2. *mailan*, telebistarako albistegi bat prestatzea (Komunikazioaren Teoria II eta Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Informazioa II).

- Mendeberriri buruzko formazioa jaso HEZItik: goiz beteko 5 saio, titulu berriaren diseinuari begira.

- 3) Formazio saio horiek jasotzeaz gain, GIBK batzordea (Gradu Ikasketak Berriak: Komunikazioa) sortu da; bertan parte hartu dute Komunikazio ikasketak hornitzen dituzten hiru departamentuetako lagunek, HEZiko zuzendariak, idazkari akademikoa eta idazkariak (zortzi pertsona orotara). GIBK-k pentsatu/disei-

natu ditu, besteak beste, Gradu titulu berriaren izena, soslai profesionala, konpetentziak, egitura... Berak ezarri ditu, era berean, materien fitxen diseinurako irizpideak ere. Materiak eurak osatzea eta beraien fitxak egitea departamentuen lana izan da. GIBK-k 2008ko udan jaso ditu fitxa guztiak.

Gainerakoan,


- Aurreko ikasturtean indarrean jarritako **hizkuntza-politika** berriari eutsi zaio, euskararen zentraltasuna ziurtatu, eta, aldi berean, ingelesarekin eta gaztelaniarekin harreman naturala ez galtzea bermatzeko asmoz. Horrenbestez, IKOn eskainitako ikasgai gehien-gehienak euskarazkoak izan dira, baina
 - Lehen zikloko bi urteetan ingelesa eta gaztelania presente egon dira urte osoan zehar, *Ingelesa I eta II, Lengua, Idatzizko informazioa eta Komunikazioa II eta Hizkuntza lantegia* ikasgaien bidez. Edukia baino, hizkuntza bera landu da ikasgai horietan.
 - Bigarren zikloan ere presente izan da ingelesa eta gaztelania.
 - 3. *mailan*: *Produkzioa eta errealizazioa ikus-entzunezkoetan I* ikasgaiaren produkzioari zegokion zatia (1. lauhilekoa) ingelesez eman dute. *Teoría de la comunicación audiovisual* (urte guztiko ikasgaia), berriz, gaztelaniaz.
 - 4. *mailan*: *Emprendizaje* ikasgaia (1. lauhilekoa) gaztelaniaz eta *International Communication* (1. lauhilekoa) ingelesez.

Bigarren zikloan, beraz, ingelesa eta gaztelania komunikazio munduko edukiak jorratzeko erabili dira Komunikazio Ikasketetan. HUENeko 3. eta 4. mailetan, aldiz, gaztelania bai, erabili da (3. mailako *Gestión de Personas* eta *Gestión de Procesos* lauhileko banako ikasgaietan eta 4. mailako urte osoko *Viabilidad de proyectos empresariales* ikasgaiaren), baina ez ordea ingelesa.

- **Aholkularitza akademikoa** sendotu da: tutoreen figura indartu da, jarraipen taldeei eutsi zaie, praktikak bermatu zaizkie ikasle guztiei, eta, estreinakoz, Komunikazio arloko ikasleen Karrera Amaierako Proiektuen plangintza egin da. Otsaila, ekaina eta iraila bitartean 23 KAP defendatu dira (9 IKOn eta 14 HUENen).

- Mundu profesionalarekin harremana:

- ETBko buru Bingen Zupiriak eta albistegietako zuzendari Jaime Otamendik 4. mailako Kalitatea ikasgaia eman dute; beste zenbait profesional ere izan ditugu irakasleen artean (Andu Lertxundi, Eneko OIasgasti, Jasone Agirre, Iñaki Guridi, Garikoitz Udabe...).



- EIKEN EAEko ikus-entzunezkoen clusterreko idazkari nagusiarekin bilera egin da, gure ikasketen berri emate aldera. Horrez gain, EIKENen EIKEN-Bank proiektua aurkeztu da unibertsitatean (gure ikasle batzuek parte hartu dute bertan) eta ideia-lehiaketa horren sari banaketa ekitaldian ere parte hartu dugu.
- Tabakalera egitasmoko arduradunekin bilera egin da proiektu hura ezagutu eta gure ikasketen berri emateko.
- Zinealdea egitasmoko arduradunekin bilera egin da proiektu hura ezagutu eta gure ikasketen berri emateko.
- Komunikaldien 2008ko ekitaldia ere Komunikazio ikasketetako 1. promozioaren lan-orientaziora begira eratu da, *Etorbizuneko komunikatzaileak* izenburupean.

Orientazio profesionala

Arestian aipatu dugun Komunikaldiak jardunaldiaren iazko ekitaldia propio Komunikazio ikasleen lan-orientaziora begira antolatu da. Ikasketak amaitzen zituzten Humanitateak Enpresako ikasleak gogoan, berriz, ikasturtean zehar hitzaldi eta irteera berezi batzuk eskaini zaizkie:

- Bisiitei dagokionez, Irizar enpresa bisitatu dute, lan-antolaketa berritzaileei buruzko informazioa jasotzeko.
- Hitzaldiak:
 - Joxe Aranzabal HUHEZiko komunikazio arduraduna (zelan egin curriculum elektronikoa bat).
 - Ingroup aholkularitza enpresako Amaia Madina (lan munduan estreinako urratsak egiterakoan kontuan hartu beharrekoak).
 - Ulma taldeko komunikazio arduradun Carlos Sarabia (barne komunikazioa enpresan).
 - CVL enpresako Olaia Elkoro komertzial burua (komertzial lanari buruz).
 - *TU-Lankide* aldizkariko zuzendari Javier Marcos (kanpo komunikazioa enpresan).

Ikasle eta irakasleen mugikortasuna

- IKOko 3. mailako lau ikaslek *Europako bi unibertsitatetan* egin dute lehen lauhilekoa, Erasmus programa baliatuta (bi Estoniako Tallinn University-n izan dira eta beste 2 Herbeheretako Windesheim University-n).
- IKO 3ko sei lagunek euren *praktikaldia atzerrian* burutu dute, horretarako udako oporraldia baliatuta:
 - AEB: 2
 - Kuba: 2
 - Nikaragua: 2

- IKOko bi lagunek *Bollywood-en* (Mumbai, India) egotaldia egin dute euren KAPa bideratzeko.
- Galeseko *Aberystwyth University-ko* Theatre, Film and Television Studies departamentuarekin elkarlan hitzarmena erdietsi da, HUHEZiko irakasleak Aberystwythera *visiting researcher* modura joan daitezzen. Hitzartu da, halaber, 08-09 ikasturtean departamentu horretako irakasle bat HUHEZira hitzaldia ematera etorriko dela.
- Flandeseko *Howest University-ko* irakasle batekin akordioa lortu da hurrengo ikasturtean Erasmus bisitaldi bat egin dezan HUHEZira.
- *EJTA* (European Journalism Training Association) sareko urteroko bilkuran izan gara.
- Ingeles hutsezko *International Course-a* egin da. Estoniako ikasle bat eta Herbeheretako beste bat bertaratu dira.
- 08-09rako nazioarteko ikasturte horren *bigarren edizioa* diseinatu da. EITB24rekin akordioa erdietsi da Erasmus ikasleek praktikak bertan egin ditzaten.

Jardunaldiak

- *Komunikaldien hirugarren ekitaldia* egin zen martxoaren 5ean, *Etorbizuneko komunikatzaileak* izenburupean. Profesional hauek izan ziren hizlari HUHEZin egun horretan: Martxelo Otamendi (Berria), Aritz Agirre (Euskadi Irratia), Joseba Iriondo (ETB), Luis Fernandez (CodeSyntax), Izaskun Ellakuriaga (Gerediaga-Durangoko Azoka), Itxaso Atutxa (3Koma), Arri Granados (K2000), Itziar Mena (EIKEN) eta Asier Altuna (gidoigile eta zine zuzendaria).
- Maiatzaren 6, 7 eta 9an fikziozko film labur eta dokumentalen *HUHEZINEMA* lehiaketaren lehen ekitaldia egin zen, IKOko 4. mailako ikasleek eta IK departamentuko irakasle batzuek antolatuta. Egun horietan Aizpea Goenagak eta Moriarti Produzioak-eko Jon Garaño eta Aitor Arregik gidaturiko mintegi bi egin ziren HUHEZin; horrez gain, aurkezturiko 41 lanetatik 15 aukeratu zituen epaimahaia lehiaketarako. Lan horiek Arrasateko KulturAte aretoan ikusi ziren maiatzaren 6an eta 7an; maiatzaren 9an, berriz, film sarituen proiektzioa izan zen areto horretan bertan.
- Ikasturtean zehar *8 zinema saio* eskaini ziren fakultatean, Andres Gostin irakasleak gidaturik.

3. Formazio iraunkorra eta enpresa eta erakundeei eskainitako zerbitzuak

Graduondoak

Prestakuntza pedagogikoan unibertsitate aditu titulua

Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak eman ahal izateko prestakuntza.

Prestakuntza pedagogikoko kursoaren helburua da bigarren hezkuntzan lan egin nahi duten lizentziatuei oinarritzko formazioa ematea, bai didaktika eta bai psikopedagogia eremuetan.

Didaktika Espezializazio titulua lortzeko beharrezkoa da kurso hau egitea, beharrezkoa baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan eskolak eman ahal izateko.

Kurso honek Eusko Jaurlaritzaren 250/2002 Dekretuko Araudiari erantzuten dio, eta Eusko jaurlaritzaren homologazioa du.

Helburuak

- Bigarren Hezkuntzako irakasleen lan eremua ezagutzea eta lan eremu horretan profesional gisa aritzeko garatu beharreko oinarritzko gaitasunak eskuratzea.
- Bigarren Hezkuntzako ikasleen ezaugarriak eta murgilduta aurkitzen diren egoerak ezagutzea.
- Irakasle lanbidearen garapenerako beharrezkoak diren tresnen ezagupena eta erabilpena: curriculumaren antolaketa, gelaren kudeaketa, aniztasunaren trataera.
- Irakaste-ikaste prozesua ulertzeaz gain, bere optimizaziorako beharrezkoak diren strategi egokiak garatzea.
- Aipatutako helburu desberdinak lortzeko baliabideak ezagutu eta diseinatzea.
- Gelaren dinamika eta irakaste-ikaste prozesuaren kudeaketaren inguruan irakasleen trebetasunak garatzea.

Ikasketa plana

Kursoaren iraupena 60 kreditutakoa da, eta bi bloketan banaturik dago: ikasgai teoriko-praktikoak eta practicuma.

Ikasgai teoriko praktikoak bi ataletan banatzen dira: ikasgai komunak (espezialitate guztiek burutu behar dituztenak) eta didaktika espezifikokoak (lan arloen arabera antolatuta).

Euskal kultur gintzaren transmisioan unibertsitate aditu titulua

XX. mendeko esperientziatik XXI. mendeko galdegaiei begira, euskal kultur gintzaren transmisioa ipar duen formazio-eskaintza sortu dugu HUHEZIn, lehendabizikoz, 2007-2008 ikasturtean. Gure kultur gintza modernoaren protagonistek -aditu eta arituek- pilatutako esperientziaren transmisioa antolatu dugu. Aditu tituluaren 60 ikaslek hartu dute parte eta horietako 45ek osatu dute kursoa amaierako proiektua.

Helburuak


- Euskal kultur gintzari buruzko ezagutza barreiatua korpus batean biltzea, eta formazio dialogiko baten bidez transmitzea. Horren baitan, kultur gintzan azken hamarkadetan sortzaileek izandako kezka, ikuspegi, zailtasun, apustu eta esperientziak belaunaldi berri bati ezagutaraztea.
- Gure kultur gintzak dituen ortzimugen eta desfioen aurrean formazio multifokal eta praktikoa egitea, eragileei jakintza-tresnak emanez.
- Kultur gintzaren transmisioan izandako estrategia eta esperientzia partzialak beste alorretako eskura jartzea.
- Aurretik esandako guztiak (korpus baten sorkuntza, desfioen gogoeta multifokala, esperientzien transmisioa) bi multzo harremanetan jarriz egitea: batetik aritu eta adituen multzoa, eta bestetik gai honetan jantzi nahi duten gaurko eta etorkizuneko eragileen multzoa.

Ikasketa plana

Aditu tituluaren iraupena 15 ECTSkoa izan da (350 ordu) eta 4 bloke izan ditu:

1. Formazio teorikoa: adituak mintzo

- Hizkuntza komunitateen dinamikak. Kultur gintza kokatzeko oinarriak.
- Egungo gizarte aldaketak eta kultur gintza.
- Egungo teknologia aldaketak eta kultur gintza.
- XXI. mendeko egoeran euskal izaeraz gogoeta.
- Kulturari buruzko diskurtso desberdinak euskal komunitatearen historian.
- Euskal kultur gintza aurrera begira:
 - Kultur gintzaren hezkuntza-transmisioa.
 - Kultur gintzaren sinergiak herri-eskualdeei dagokienean.
 - Kultur gintza, hedabideak eta komunikazio-teknologiak.
 - Sorkuntza eta hedapen estrategiak.



2. Testigantzen bidezko formazioa: arituak mintzo

- Kantagintza. Bideak eta norabideak.
- Literaturgintza. Sorkuntza eta proiektua.
- Bertsolaritza. Hogei urteko estrategia mamitua.
- Beste hainbat kultur bide. Esperientziak eta ortzimugak.
- Oinarrigintza. Egitura-esperientziak.
- Hezkuntza. Balantzea eta aurrerabideak.
- Kulturgintza gertuko komunitatean. Esperientzia eredugarriak.

3. Tutore-mintegia: ikasleak mintzo

- Adituen eta arituen irakaspenei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.
- Irakaspenak nor bere interesguneetara egokitzeko.
- Gogoetak eta esperientziak trukatzeko. Bi norabidetan: a) hezkuntza-sistema (hezkuntza orokorra, helduen euskalduntzea, hezkuntza ez formala) eta b) tokian tokiko ekimen eredugarriak (sormena, elkarlana, hartu-eman).

4. Oldozpena eta ekoizpena: oro mintzo

- Euskal kulturgintzaren garabideak: ortzimugak, hezkuntza-transmisioa eta hedapen estrategiak.
- Proiektua, hiruko taldeetan, taldeak aukeratutako tutorearen gidaritzapean.

Bereziki interesgarria izan da euskal kulturgintzaren baitako protagonistak izatea irakasle. Horietako asko lehen aldiz aritu dira unibertsitatean beren gogoeta-esperientzien berri ematen, transmititzen beren eskarmentuaren ondorioak.

Kooperatibagintzan unibertsitate aditu titulua

2008ko maiatzaren 16an abiatu genuen Kooperatibagintzan Unibertsitate Aditu titularen lehen edizioa. Graduondoko honek norabide bikoitzean egin nahi du ekarpena: batetik, ikuspegi sozial eta ideologikotik kooperatibagintzaren gaineko hausnarketa burutzeko eta kooperatibagintza biziberritzeko elementuak eskura jarri nahi ditu; eta bestetik, gure kooperatibetan ideia kooperatiboaren trakzio eta hedatze lanean jardungo duten pertsonak prestatzeko baliabideak eskaini.

Oro har, ondoko hauek dira Kooperatibagintzan Unibertsitate Aditu tituluak erdietsi nahi dituen helburu orokorrak:

- Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren ezaugarrien inguruko ezagutza zabala eta sakona eskaintzea.

- Egungo gizartearen gaineko irakurketa gaurkotua eskaintzea kooperatibagintzaz hausnartzeko abiapuntu gisa.
- Kooperatibagintzaren barne dimentsioari begira, ikasleak parte hartze eta enpresa demokraziaren eremuan trebatzea.
- Lankidetzaren psikologiatik erakunde eta pertsona kooperatiboaren gaineko irakurketa burutzea.
- Parte hartzaileak hezkuntza kooperatiboaren kudeaketan trebatzea.
- Etorkizunera begira kooperatibagintzaren galdegai eta eronken inguruko hausnarketa bultzatzea eta aterabide posibleak marrazteko baliabideak eskaintzea.

Guztira 28 ikasle izan ditugu, Mondragon taldeko kooperatibetako ordezkariak. 2009ko otsailean bukatuko da lehen edizioa proiektuen aurkezpenekin.

Formazio iraunkorra eta enpresa eta erakundeei eskainitako zerbitzuak

Kooperatibismoaren gaineko formazio saioak

Kooperatibismoaren gaineko 16 orduko formazio saioak eskaini ditu Lanki Ikertegiak, Otalorarekin elkarlanean. Kooperatibetako organoei zuzenduriko formazio programak dira (errektore kontseilu, kontseilu sozial eta zuzendaritza kontseilua). Izaera dialogiko eta parte hartzailea dute; eta nagusiki Arrasateko kooperatibagintzaren sakoneko filosofia, esanahi, zentzu eta ezaugarri funtsezkoenak lantzea eta kooperatibagintzaren gaineko hausnarketa sustatzea dute helburu.

2007-2008 ikasturtean zehar formazio egiteko honek lan bolumen handia hartu du eta Lankirentzat asteroko lan dinamika egonkor bat ekarri du. Guztira 55 saio egin dira eta 700 bat kooperatibistatik gora hartu dute parte.

HAEE-IVAP

Aurreko urteetan bezala, 4. Hizkuntza Eskakizuneko ikastaroa antolatu dugu, IVAPekin lankidetzan. 2007-2008 ikasturtean 15 talde izan ditugu (13 aurrez aurreko saioetan, eta beste bi talde on-line), 150 ikasle gutxi gorabehera. Ikastaldeak izan ditugu Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Gernikan. Online

3. Formazio iraunkorra eta enpresa eta erakundeei eskainitako zerbitzuak

taldeetan jardun dutenek, on-lineko saioez gain, aurrez aurreko saioak ere izan dituzte, hamabostean behin, Eibarren. Bruselan ikasle bat izan dugu, eta bideokonferentziaz jaso ditu aurrez aurreko saioak.

Ikastaroaren helburua da ikasleak administrazio hizkeran trebatzea, gai izan daitezten administrazio testuak sortzeko. Ikasturtea urrian hasi eta ekainera bitartekoa izan ohi da, eta herri erakundeetako langileei dago zuzenduta. Hiru modulan dago banatuta, eta lau trebetasun -mintzamina, idazmena, irakurmena eta ahozkoaren ulermena- lantzen ditugu, ikasleek ahalik eta gaitasun handiena lor dezaten administrazio testuak sortzen. Fakultateko irakasle batzuk eta hitzartutako beste zenbait irakasle (hizkuntzaren irakaskuntzan eskarmentu handikoak guztiak ere) aritzen dira zeregin horretan. Online ikasgela Mudle plataforman eratu dugu, eta hori izan da urte honetako berrikuntza handiena, izan ere aurreko urteak "gelabirtuala" plataformaren bidez eskaini genuen ikastaroa, eta Mudle plataformak berrikuntza eta hobekuntza ugari ekarri ditu. Hurrengo ikasturterako erronka nagusia da ikasleentzako testuliburuak egin eta argitaratzea.

Hizkuntza proiektuen aholkulariak formatzeko ikastaroa

Ikastaro hau Kristau Eskolako kolektiboari zuzenduta dago eta Erakunde honek HUHEZIRi egindako eskaerari erantzun dio bere lehen edizioan.

Helburua: Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren garrantziaz, izaeraz eta prozesuaz jantzi eta bere eraikuntza prozesuan lider izateko gai izatea.

Parte hartu dute 11 eskolatatik etorritako 13 ikastarik.

Testuingurua: Europatik datorkigun markoak eta Eusko Jaurlaritzak hizkuntzen ikaskuntzaz markatzen dituen eskakizunei erantzun beharko dio eskolak; horren arabera, ikasleek gaitasun komunikatibo batzuk lortu beharko dituzte DBH ikasketak bukatzen dituztenean. Errealitate hori aurrez aurre duela ikusita eskolak aurrea hartu behar dio egoera berriari, helburu horiek lortzeko egokituta egongo den hizkuntza proiektua diseinatuz, besteak beste. Eskola bakoitzak, beraz, bere hizkuntza proiektu propioa izan beharko du. Eta hain zuzen horri aurre egingo dion profesionala formatzea izango da gure helburua. Alegia, eskoletan Ikastaroan zehar lantzen diren alderdiak eta egiten diren jarduerak guztiak proiektuari begira daude. Ikastariak bere eskolako errealitatera egokitu beharko du prozesua eta helburuak. Hizkuntza proiektua eraikitzearekin batera, ikaslea bere ikastetxera hedatzeko

beharko dituen estrategiak eta prozedurak (metodologia) definitzen joango da.

Ikasketa plana

Ikastaroak urtebeteko iraupena du, eta modu honetan dago antolatuta:

- 1) Prestakuntza teoriko-praktikoa: 120 ordu (zuzeneko prestakuntzarako 70 ordu eta taldekako edo bakarkako lanetarako 50 ordu).
Hamalau zuzeneko saio egiten dira. Hauekin batera, parte-hartzaileek astean 2 ordu ematen dituzte irakurketak, saiakerak, hausnarketak eta landa-lana egiten. Horrez gain, ikastetxeko talde batekin zenbait lan egiten dituzte.
- 2) Proiektua: tutoretzapeko bakarkako lanetarako 30 ordu izaten ditu ikasleak.
Prestakuntza teoriko-praktikoarekin batera, parte-hartzaileek aholkularitza-proiektu praktikoa egiten dute geroago eskoletan abian jartzeko. Horretarako, erakunde emailearen tutoretza izaten dute.

Berrikuntza metodologikoan formakuntza

Erakundeek edo/eta eskola zehatzek eskatuta aholkularitza eta formazioa eman da ondoko gaien inguruan:

- Orientazioa.
- Orientazio Zerbitzua Eskoletan.
- Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza.
- Zeharkako Konpetentzien garapena eta ebaluazioa.
- Talde Dinamika.



4. Ikerketa

Hirugarren zikloa

Doktorego programa: *humanitateak eta hezkuntza etorkizuneko erakundeetan.*

Duela bost urte jarri genuen abian HUHEZiko doktorego programa eta 2007-2008 ikasturtean guztira hogeita bi lagun izan dugu matrikulatuta. Azpimarratzekoa da ikasturte honetan defendatu dela HUHEZIn aurreneko tesia, gainera beste hamar tesi izan dugu matrikulatuta, ikastaroetako bigarren mailan eta ikertzeko nahikotasun titulua lortu duten hiru ikasle izan ditugu eta lehenengo mailan zortzi ikasle eman zuten izena. Bestalde, HUHEZiko doktorego programatik kanpo hamaika lankide ari dira tesia edo doktorego ikastaroak egiten.

Ikerketa

Lanki ikerkegiak kooperatibagintzan zentratzen du bere ikerketa jarduera. Hiru ikerketa lerro nagusi ari da garatzen:

- Kooperatiben dimentsio soziala.
- Lankidetzaz hezkuntzari buruzko ikerketa.
- HEKI lerroa. Herri ekonomietako kooperatibekiko interkooperazioa.

Ikerketa lerro horietan egindako ekintza guztiak zehatz mehatz azaldu daude txosten honetan, Lanki ikerkegiari dagokion atalean.

Hezkuntza arloan, hezkuntza berrikuntza aniztasunari erantzuteko ikerlerroaren barnean abian diren hainbat proiekturen sendotze eta egonkortzea bultzatu da 2007-2008 ikasturtean. Ikerlerro honek hezkuntza ikuspegi zabaletik eskolen beharrei erantzun nahi die diziplinarteko ikuspegi batetik. Ikerlerro honetan lau arlo jorratzen dira:

1) *Eleaniztasuna eta kulturartekotasuna:*

Kulturartekotasuna lantzeko mintegia (ELEA taldea). 2001-2002 ikasturteetik lanean ari da talde hau. Hasieratik mintegiaren objektua anitza izan da, hau da, kulturartekotasunaren fenomenoari hainbat ikuspuntutatik begiratu zaio: bigarren hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza eskola eremuan; motibazioa eta jarrerak; eta kulturartekotasuna bere horretan (eskola inklusiboa...). Mintegia hiru eginkizun betetzen ari da: irakasleak formatzea; ikerketa-jarduera metodologia erabiliz ezagutza berri sortzea; eta argitalpenak egitea, izandako esperientziak ezagutarazteko.



Hizkuntzen kudeaketa bateratua hizkuntza gutxituaren testuinguruan. Hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza erdigunea dela, hainbat lan garatu ditu talde honek. Bere eginkizunik nagusia euskararekin eta beste hizkuntzekin gertatzen denaren inguruan hausnarketa suspertzea izan da eta, azken finean, gure Hezkuntza Sistema eleanizdunean gertatzen dena hobeto ezagutzea esku-hartze eraginkorra lortu ahal izateko. Talde honek estatu mailako ikerketa sare batean parte hartu du bi hizkuntza ofizial dauden beste erkidegoko zenbait partaiderekin.

Euskararen ahozko garapena derrigorrezko hezkuntzan. Proiektu honetan ahozkototasuna ikerketa gai hartuta ondorengo alderdiak lantzen dira: irakasleen formazioa ahozkoaren irakaskuntza-ikaskuntzan beren praktikaren hausnarketatik abiatuta, irakaskuntzaren lehentasunak, lehen hezkuntza eta haur hezkuntza etapan arteko progresio printzipioak eta irakasleen arteko esku hartzerako eta elkarlanerako estrategiak. Ikerketa proiektu honek, ikerketa jarduera metodologian oinarrituta, ahozko hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren hobekuntza bilatzen du. Ikertzaileen eta irakasleen arteko kooperazioak errazten du komunikazioa, hausnarketa, hobekuntza eta berrikuntza.

2) *Haur hezkuntza (0-3 urte):*

Hazitegi. Proiektu honen helburua da haurren garapen osasuntsua bermatuko duen haur eskola (0-3) eredu berri baten diseinua, aplikazioa eta jarraipena egitea. Proiektuak ikastolen sarearen kolaborazioa du, horrela, ikastola sareko (28 ikastola) haur eskolen azterketa egin du, haurren garapenean haur eskolak duen eragina zein den esango duena. Ildo horretatik, Leiden (Holanda) Unibertsitateko ikertzaileekin ikerketa konparatibo bat burutu du.

MacArthur proiektua. Behin Communicative Development Inventories euskarara egokitu ondoren (eskuliburua 2008ko abenduan argitaratuko da), talde honen ikerketa jardura zentratu da hizkuntza-inputaren eragina komunikazio garapenean. Ikerketa honetan Unibertsitate ezberdinetako ikertzaileek hartzen dute parte (HUHEZI, Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Salamancako Unibertsitatea).

3) *Trebezia eta balioen garapena:*

Balioak haur literaturan ikerketa proiektua. Haur literatura tresna eraginkorra da hezkuntza moralerako, horregatik talde



honen helburua da kultura eta hizkuntza ezberdinetako haur literaturako hainbat libururen balio etikoen azterketa egitea eta egokiak diren liburuen erabilera proposatzea.

4) *Berrikuntza metodologikoa justifikatu, praktikan jarri eta balioztatzea:*

School Science Teaching by Project Orientation: proiektu honetan hainbat herrialdetako ikertzaileak bildu dira (Alemania, Danimarka, Txekia, Finlandia, Errumania eta Euskal Herrikoak) zientzien didaktikaren inguruan ikertzeko eta hausnartzeko. Proiektu honetan PBOPBLa erabiltzen da estrategia didaktiko gisa DBHn.

E-lema proiektua: Software askea, euskara eta jakintzaren kudeaketa uztartzen ditu. Tresna honek talde lana errazteko eta dinamizatzeko baliabide ugari eskaintzen ditu, alegia, zenbait gune birtual jartzen ditu erabiltzailearen esku, besteak beste, komunikatzeko, informazioa kudeatzeko eta lan konpartitua kudeatzeko.

Idatzizko hizkuntzaren apendizaiaren baldintzak: ikerketa honetan zortzi Autonomi Erkidegoko ordezkariak hartzen dute parte (Andaluzia, Asturias, Cantabria, Gaztela-Leon, Catalunya, Comunitat Valenciana, Euskadi eta Madril). Lanaren helburua da ikasleek beraiek ekartzen duten eza-gutzaren eta ikastolan ikasten dutenaren arteko erlazioak identifikatzea eta ikaskuntza arrakastatsua lortzeko baldintza onenak detektatzea. 2007-08 ikasturtean gelaren behaketa burutu dute eta behaketaren helburua izan da aztertzea irakaslearen jarduera eta ikasleen erantzuna (irakurketa eta idazketaren gaitasunaren arabera).

Bestalde, beste proiektu batzuk HEZIn, Hezkuntza Zientzien Institutuan, garatzen direnez, txosten honetan HEZlri dagokion atalean zehatz azalduta daude. Nolanahi ere, honakoak dira HEZIn garatzen diren proiektuak:

- LifeLearn Project.
- Indagazioa: tutore-irakasle arteko elkarrekin-tzaren azterketa.
- Mendeberrri proiektuaren ebaluazioa.

Jasotako diru-laguntzak: ikerketak aurrera ateratzeko ezinbesteko dugu kanpoko finantziarioa lortzea, 07-08 ikasturtean ondorengo diru-laguntzak lortu genituen:

- Marco Programa (gizartea eta zientzia): School Science Teaching by Project Orientation - Improving the Transition to University and Labor Market for Boys and Girls. LifeLearn Project.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sarea: E-lema proiektua.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Indagazioaren proiektua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saileko Oinarrizko eta/edo Aplikatutako Ikerketa proiektuak: Euskararen ahozko garapena derrigorrezko hezkuntza proiektua.
- MEC: Euskararen ahozko garapena derrigorrezko hezkuntza proiektua eta MacArthur proiektua.

Bestalde, beste eskaera batzuk egin genituen, momentu honetan ebazpenen zain gaudelarik:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Ikerketa eta Unibertsitate Saileko Oinarrizko eta/edo Aplikatutako Ikerketa proiektuak, Elkarlanoak eta Giza eta Gizarte-Zientzietakoak egiteko laguntzak. (2009-2011) 5 proiektu.
- Gipuzkoako Foru Aldundian. 5 proiektu.

Datozen urteetarako erronkak hiru esparruetan kokatu daitezke, batetik, ikerketa taldeak egonkortzea eta indartzea (ikerketara ematen dugun denbora areagotuz); bestetik, kanpo finantziarioa lortzea eta, azkenik, ikerketa jardueratik sortzen den ezagutza erabiliz gure eskaintza hezitzailea elikatzea.

5. Institutuak

HEZI Hezkuntza Zientzien Institutua

Institutuaren jarduera bi eremu mailatan (Unibertsitatea eta beste Hezkuntza eremuak) eta hiru jarduera multzoren inguruan (Ikerketa, Formazioa eta Zabalkundea) antolatzen da. Ondoren azaltzen dira eremu eta jarduera multzo bakoitzean 2007-2008 ikasturtean garatutako ekimenak.

Unibertsitate eremua

1. Ikerketa

1.1. "LifeLearn" Proiektua

Proiektuaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Bizitzaren esparru ez formaletan garatutako jakintzak sistematizatzea eta jakintza horiek kreditatzea.
- Ez formalak diren jakintza horiek garatzeko eta formalizatze-ko behar diren tresnak eta estrategiak prestatzea.

Proiektuan 5 herrialdek eta unibertsitatek parte hartzen dute: University of Jyväskylä (Finlandia) ; University of Tartu (Estonia); Hochschule Wismar, University of Technology, Business and Design (Alemania), Glasgow Caledonian University (Eskozia) eta Mondragon Unibertsitatea HUHEZI.

Partaide bakoitzari ardura desberdinak esleitu zaizkio; honakoak zehazki:

- Glasgow Caledonian University (Eskozia): Proiektuaren koordinazioaz (ikerketa, zabalkundea, kudeaketa ebaluaketa) arduratu da.
- Hochschule Wismar, University of Technology, Business and Design (Alemania): Programa pilotuen garapenaren koordinazioa.
- University of Tartu (Estonia): Argitaratu diren gidien koordinazioa.
- University of Jyväskylä (Finlandia): Proiektuaren gidaritzaren koordinatzailea.
- Mondragon Unibertsitatea HUHEZI: Programa pilotuen ikus- kapena eta ebaluaketaren koordinazioa.

Proiektuak bi urteko iraupena izan du, 2006ko urriaren 1etik 2008ko irailaren 30a bitarte. Azken txostena 2009ko urtarrilaren 31an aurkeztuko da, Bruselan. Txosten honek biltzen duen denboraldian, 2007-2008 ikasturtean Mondragon Unibertsitatea HUHEZIk garatu dituen ekimenak, aldiz, honakoetan bildu dira:

- Ikasleen, tutoreen (*facilitator*) eta programa pilotuen jasagarritasunaren ebaluaketa bideratzeko tresnen garapena (Iraila-Urria).



- Ebaluaketa bideratzeko tresnen aurkezpena proiektuko kideei HUHEZIn antolatutako bileran (azaroak 19-20, 2007).
- Gainontzeko partaideek aurrera eramandako programa pilotuetan jasotako datuen bilketa eta prozesamendua (Apirila-Maiatza).
- Ebaluaketa txostenaren garapena eta buruzapena (Ekaina-Uztaila).
- Ebaluaketaren inguruan idatzitako komunikazioaren aurkezpena Wismar-en (Alemania) egindako *1st International Conference on Engineering and Business Education (ICEBE)* jardunaldietan (irailak 14-17).
- Proiektuko web orrirako ekarpenak (<http://www.icll.gcal.ac.uk/lifelearn/index.html>) eta proiektuaren zabalkundea bertako komunikabideetan (*Goienkarian* 2007-11-21); *Tu Lankiden* 2007ko azaroko zenbakian).

a) "Indagazioa Tutore-Ikaskerterekin elkarrekin aztertzea."

Ikerketa hau 2005-2006 ikasturtean jarri zen martxan. Ikerketa honen helburu nagusiak irakasle-tutoreen estrategia egokien identifikazioa egitean datza eta, zehazki, irakasle-tutorearen diskurtsoa eta darabiltzan estrategien azterketa egitea, betiere, aintzat harturik tutoreek parte hartzen duten metodologia desberdinen izaera eta helburuak.

Horrela, aipatutako adituek Indagazio Mintegiko kideei eskainitako formazio saioetan jasotako ekarpenetan oinarrituz eta, bestetik, aurreko ikasturtean burututako ikerketatik sortutako ikerketa ildo berriei helduz, metodologia bakoitzean tutorearen funtzioak behatzeko eta aztertze-ko tresna diseinatu zen, ordura arteko aztergaiak uztartuz. Dagokigun ikasturte honetan, 2007-2008 ikasturtean, arestian aipagai izan dugun tutorearen behaketarako tresna hori metodologia desberdinetan diharduten tutoreek osatu dute horretarako ondoko prozedura erabili da.


Banakako hausnarketa → taldekako hausnarketa
→ adituek esaten duenarekin kontrastea → ondorioak.

Ikerketa hau aurrera eramateko kanpoko bi aditurekin ikerketa sarea osatu genuen, 2006-2007 ikasturtean, zehazki Barcelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Olga Esteve doktoarearekin eta Aalborg Unibertsitateko (Danimarka) Lise Busk doktoarearekin.

b) Ebaluazioa Mendeberrin Proiektuan:

Hainbat ikerketek erakusten dute ebaluazioak duen garrantzia ikaste prozesuan, hots, ikasleek ikasten

5. Istitutuak



ikasteko estrategia desberdinak garatzen dituztela. 2007-2008 hasitako ikerketa honen bidez, Mendeberrri proiektuan erabiltzen diren ebaluazio modalitateak duten eragina ikusi nahi. 2007-2008 ikasturtean goeraren diagnostikoa egin da.

2. Ikerketa

Hezkuntzaren berrikuntza metodologikoaren gaiarekin lotutako formazioa eman da ondoko unibertsitateetan: Txileko Valparaisoko Universidad del Mar, Osornoko Universidad de los Lagos eta Iquique-ko Arturo Prat unibertsitateetan. Euskal Herriko Unibertsitatean. Ramón Llull Unibertsitatean eta Comillaseko Unibertsitatean.

3. Zabalkundea

3.1. Argitalpenak

Mendeberrriak aldizkariaren argitalpena.

Ikasturte honetan bi ale (bat bikoitza) argitaratu dira eta ondoko gai monografikoak jorratu dira:

- 10 alea: Zeharkako kompetentziak.
- 11-12. alea: Moodle mood Euskadi 08 jardunaldiak MUN.

3.2. Komunikazioak

Berrikuntza metodologikoaren esparruan jardunaldi desberdinetan aurkeztutako komunikazioen argitalpena egin da 2007-2008 ikasturtean.

Eremu ez unibertsitarioa

1. Ikerketa

Hazitegi Proiektua bultzatu eta bertan parte hartzen du HEZI Istitutuak Hezkuntza Prozesuak Departamentuarekin elkarkidetzan.

1.1. Hazitegi proiektua

Haur eskolek (0-3 etapa) haurren garapen mental osasuntsuan duten eragin garrantzitsua azpimarratzean eta eskola horien ezaugarriak aztertzean datza proiektu honen oinarria. 2007-2008ko ikasturteari dagokionez, azpimarratu behar da aurreko urtean, Herbeheretako Leidengo Unibertsitatearekin, hasiera eman zitzaiola umearengan eragiten duten elementuak aztertzeko ikerketa konparatiboari, jarraipena eman zaiola eta

jada, Society for Research in Child Development erakundeak antolatzen duen mundu mailako kongresuan ponentzia bat eta poster bat aurkeztuko dela. Ikerketaren ondorioz, doktorego tesi bat egin da eta beste bat bukatzean dago. Bestalde, Ikastolen Elkargoarekin egindako ikerketaren emaitzak ere aurkeztu zaizkie eta aurki plazaratuko dira aldizkari eta kongresuetan.

2. Formazioa

HEZI Istitutua Hezkuntza arloko formazio iraunkorraren kudeaketaz arduratzen da. Formazioaren edukien arabera Fakultateko Departamentu desberdinen partaidetzaz burutu dira. Honekin batera, HEZI Istitutuak bere formazio esparru propioa du, berrikuntza metodologikoari lotutakoa, alegia. Ikastaro hauen berri Formazio iraunkorraren atalean ematen da.

3. Zabalkundea

3.1. Hazitegi proiektua

Haurren garapen osasuntsuari modu egokian erantzungo dion haur eskola eredu bat (hezkuntza egitasmoa-espazioaren antolakuntza) lantzen ari da, eta ekarpen guztiak jasoko dituzten liburu sorta bat argitaratzeko ekimen bat jarri du martxan. Egitasmo honen lehen argitalpena egin da 2007-2008 ikasturtean: Rafael Cristobal " Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores".

Jardunaldia

2007ko Abenduaren 14an, " Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores" liburua aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen "HEZKUNTZARI BEGIRADA PSIKOLOGIAREN ESKUTIK" titulupean. Honetan, 60 hezitzaile eta psikologiako hainbat adituk parte hartu zuten.

3.2. Jakingarriak

Jakingarriak aldizkaria komunikazio tresna izateko helburuz sortu zen orain dela 21 urte. Urte hauetan informazio bibliografikoa soilik ematekin pasatu da hezitzaileen interesatzen zaizkien gaiak monografikoak sakonki joratzera.

Egun, Jakingarriak aldizkaria Haur Hezkuntza eta Lehenengo Hezkuntzari buruzko esperientziak eta hainbat adituen ekarpen teorikoak ere biltzen ditu ale bakoitzean. Horrela, bada, hainbat eskolatan egiten diren esperientziak ezagutzera ematen da eta tresna aproposa bihurtu da ezagupenon aurkezpen sistematikoa bermatzeko eta esperientziak geletan sakontzeko.



2007-2008 ikasturtean hiru ale argitaratu dira:

- 62. alea "Heziketa Fisikoa Eskolan (I)"
- 63. alea "Heziketa Fisikoa Eskolan (II): Eskola-Kirola"
- 64. alea "Landa-eremuko eskolak, eskola txikiak"

Jardunaldia

2008ko Apirilaren 11an, Hezkuntza Fisikoaren monografikoak aurkezteko jardunaldi bat antolatu zen "HEZKUNTZARIK EZ, HEZIKETA FISIKORIK GABE" titulupean. Honetan, 80 irakaslek parte hartu zuten.

3.3. Haur liburu mintegia eta irakur gidak

"Haur Liburuak" Mintegia irakurketa talde bat da, irakasle eta bibliotekariz osatutakoa, Haur eta Gazte Literaturaren liburuen irakurketa egiten duena. Gure ikuspegitik, irakurketa animatzeko liburuak ezagutu egin behar dira; ez dago animaziorik li-buruaren ezagutzarik gabe. Horregatik, irakurketa mintegiak eta bertan argitaratzen ditugun gidak garrantzitsuak dira irakurzaletasuna suspertzeko.

LANKI

Ikertegiaren egitekoa da errealitate kooperatiboa eta autoeraketa ikertzea diziplina anitzetatik, eta, hortik abiatuta, kooperatibei eta gainerako eragileei gogoeta eta formazio zerbitzua eskaintzea. Bere ezaugarrien artean hauek azpimarra daitezke: diziplinartekotasuna, lankidetzaren giza zientzien ikuspegitik aztertzerakoan; eragile kooperatiboekiko loturaren eta autonomiaren arteko konbinazioa; euskaratik abiatutako eleaniztasuna; eta bere irekitasuna, nagusiki munduko Hegoaldeko eragileei begira.

Lan-taldea hamaika ikertzailek osatu dute ikasturte honetan, gehienak aldi berean irakasle direnak, eta izan da kolaboratzaile sare bat ere, HUHEZiko irakasle, ikasle, kooperatibetako eragile eta beste unibertsitateetako lankideek osatua.

Ikertegiaren ikerlerroen lehenetsunak kooperatibagintzak etorkizunera abiatzeko dituen behar eta hutsuneen inguruko gogoetan kokatu behar dira. Gure egitekoari jarraiki, kooperatibagintzaren alde sozial eta hezkuntzazkoetan jartzen du Lanki-k bere arreta nagusia. Horrekin batera, munduko Hegoaldeko kooperatibagintza herrikoia eragileko interkooperazio-fluxua ikertzen du. Hauek dira, beraz, gure hiru ikerlerroak:

1. Kooperatibaren dimentsio sozialak.
2. Lankidetzaren hezkuntzari buruzko ikerketa eta garapena.

3. HEKI lerroa. Herri ekonomietako kooperatibetako interkooperazioa.

Lanki Ikertegia lau ildo nagusitan aurreratu da ikasturte honetan.

- Lankidetzaren hezkuntza edo formazio kooperatiboaren alorrean, hainbat urtetako lanaren ondoren, indarrez abiatu da Mondragoneko hezkuntza kooperatiboaren aro berria. Lanki Ikertegia agente funtsezko izaten ari da prozesu horretan, Otalorarekin elkarlanean. Bi mugari garrantzitsu izan ditu 07-08 ikasturteak: batetik, taldeko kooperatibetako zuzendaritza eta organo sozialentzako formazio kooperatibo programak (guztira 16 orduko 55 formazio saio egin dira); bestetik, kooperatibetako formatzaileak eta koadro sozialak sortzeko kooperatibagintzan unibertsitate aditu ikastaroa abiatu dugu.
- Ikerketa arloan, oinarriko ikerketa eta ikerketa aplikatua bereiztu behar ditugu. Batetik doktore-tesitan aurreratu dugu: Fagor Arrasateko kolektiboan nortasun kooperatiboari buruzko doktore-tesia, Subjektibitate kooperatiboari buruzkoa, Zuzenbide kooperatibo konparatuari buruzkoa eta Hirugarren Munduko kooperatibetako lankidetzaren fluxuari buruzkoa. Bestetik, Mondragoneko Gestio Sozialeko zuzendaritzak eskatutako ikerketa aplikatuak egin ditugu: gizarte aldaketak eta kooperatibismoa, kooperatiben parte hartze instituzionala eta lankidetzaren psikologia ikerketak. Azkenik, bailarako beste zenbait eragilerekin batera, eskualderako garapen proiektu integral baterako oinarriak jarri ditugu.
- HEKI ikerlerroari dagokionez, 2007ko udazkenean Garabide elkartearekin elkarlanean lehenengo Hizkuntza eta Herrien arteko truke programa antolatu zen. Azken urtetako dinamizari jarraituz martxoan, Mundukide Fundazioarekin batera, "Ekonomia solidarioko autoeraketa esperientziei jarraipena" seminarioa eta "Ekonomia solidarioa, autoeraketa eta kooperatibismoa" kongresua ospatu ziren. Ikasturte hasieratik halaber, Mundukiderekin eta Lurrik Gabeko Mugimendurekin elkarlanean, Brasilgo Parana estatuan kooperatibagintza ardatz duen proiektua dago martxan.
- Beste hainbat ikerketa eta sare-lan ohikoago ere gauzatu dira aurtan. Kooperatibagintza foroaren antolaketa, Mundukiderekin interkooperazioarekiko sare-lana eta MC-AC ikerketa sarean parte hartzea.
- Liburugintzan, *Mondragón ante la globalización* Lanki koadernoaren bigarren alea argitaratu da eta *La experiencia Cooperativa de Mondragón. Una síntesis general* liburuaren idazketa lanak burutu dira.

6. Internazionalizazioa

2007/2008 ikasturtea biziki emankorra izan da Nazioarteko Harremanen Sailaren garapenean.

Sareetan parte hartzea

Network for the education and training of teachers [NETT] sareko kide formal gisa onartu dute HUHEZI, Linz-en (Austria) ekainean egindako bileran. Sare hau Europako Hezkuntza Fakultateez osatutako sarea da, 32 Hezkuntza Fakultate eta bere helburua ikasle eta irakasleen mugikortasuna suspertzea da, eta baita ere Hezkuntza Fakultateen arteko kooperazioa bultzatzea. Fakultatea beste hiru sare hauetako partaide ere bada: ETEN (European Teacher Education Network), EJTA (European Journalism Training Association) eta Euroschool Net 2000. Aurten ere Fakultateak sare hauetan izan duen partaidea sendotuz joan da, bereziki ikasleen mugikortasunean.

Mugikortasuna

Erasmus programa Fakultatean txertatuz doa eta 7 ikasle atera dira Erasmus egonaldia egitera. Komunikazio ikasketetako bi ikasle Herbeheretako Windesheim University-n izan dira eta beste bi Tallinn University-n, Estonian. Irakasletzako bi ikasle CVU-Midt Vest University-n izan dira, Danimarkan eta beste bat Oslo University College-n, Norvegian. Gure ikasleek 19 unibertsitatetako nazioarteko programak izan dituzte aukeran Erasmus egonaldia egiteko: 16 Hezkuntza arloan eta 3 Komunikazio ikasketetan. Kalitate handiko programak dira, denak ingelesez eta hezkuntza eredu indartsuak dituzten Europako herrialdeetan. Ikasturte honetan zehar HUHEZiko kideek 20 egonaldi egin dituzte atzerrian, kongresu, ikastaro, egonaldi edo lan bisitak egiten.

Akordioak

Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bideratzeko Europako Unibertsitate hauekin ditugun Erasmus akordio alde bitarikoak berri eta sendotu dira:

Saint Patrick's College, Irlanda; Saint Mary's University College, Ipar Irlanda; Mustafa Kemal University, Turkia; CVU- Midt Vest University College, Danimarka; KHL Limburg, Flandes, Belgika; University College West Flanders (Howest), Flandes, Belgika; Fontys University, Herbehereak; The Hague University College, Herbehereak; Rotterdam Hogeschool, Herbehereak; Windesheim University of Applied Sciences, Herbehereak; Hanze University Groningen, Herbehereak; HAN University,

Herbehereak; Oslo University College, Norvegia; Tallinn University, Estonia.

Fakultatea nazioarteratzen

Nazioarteko bi ikastaro antolatu dira 2007-2008 ikasturtean. Biak ingelesez eskaini dira, ikasturteko lehen seihilekoan eta Turkia (Mustafa Kemal University), Herbehereak (Windesheim University eta Groningen Applied Science University), Belgika (KHLim University) eta Estoniatik (Tallinn University) etorritako zazpi Erasmus ikasleek hartu dute parte.

Ikastaro bakoitzak 30 ECTS kreditu izan ditu, bost ikasgaitan banatuta. Praktika saioak ere uztartu dira eta praktikekin zerikusia duen proiektu bat landu dute ikasleek. Hiru ikasgaitan, bertako ikasleekin batera aritu dira klasean ingelesez, eta honek Fakultatean curriculum eleanitza indartzen lagundu du.

Ikastarook Ipar Europako herrialde txikiek (Norvegiak, Danimarkak, Finlandiak eta Holandak) ezarritako ereduari jarraituz antolatu dira.

Hauek dira nazioarteko bi ikastaroak:

- "Media and Minority Languages", Hedabideak eta Hizkuntza Gutxituak. Komunikazioko ikasleei zuzendua dago.
- "Education and Minority Languages" da bigarrenaren izena, Hezkuntza eta Hizkuntza Gutxituak. Ikastaro hau Hezkuntza alorreko ikasleei dago zuzendua. Ikasturte honetan atzerriko 15 irakasle eta ikerlarien lan bisita edo egonaldi izan ditugu Fakultatean.

7. Ekintza ez akademikoak

Literatura astea

Literatura Asteak 10. edizioa egin du 2008. urtean. Data berezia ospatzeko, literaturaren eremuan minoritarioa den genero bati eskaini diogu astea: POESIARI. Horrela, bada, kokatu dugu poesia XXI. mendean eta gaur egungo gazteengan. Titulua honakoa izan da: "PlayStationaren belaunaldia? XXI. mendeko gazteak eta poesia". Modu horretan planteatu den gaia zera da: poesia posible ote den eta nolako poesia egin daitekeen teknologia berrien garaian.

Poesia idazle gazteak izan dira gurean: Angel Erro ("Poematrix" saioarekin); Anari ("Kantuan poHesia"); Beñat Sarasola ("PlayStationaren ondoren, apokalipsia ala emantzipazioa?"). Musika kontzertua ere izan zen Klaustroan Gose taldearen eskutik. Azken saioa HUHEZIKo ikaskeek egin zuten, ohikoa den bezala.

Saioak goizez eta arratsaldean egin dira, bai Huheziko ikasleei begira, bai Eskoriatzari eta Debagoienari begira. Literatura Astea finkatutako ekitaldia da.

Kirol zerbitzua

Ikasturte honetan izan ditugun arlorik garrantzitsuenak honako hauek izan dira:

- **Komunikazioa hobetzeko** hainbat estrategia definitu genituen; lortu direnen artean hauek daude: **Huheziko web orrialdean** kirol zerbitzua agertzea, bai berriak emanez, bai egindakoaren berri emanez. **Programa informatiko** egokitu bat izatea eta bideak eta kontaktuak egin dira beraz garatzeko eta edukitzeko. **Erasmusekin** kontaktu zuzenagoa informazioa ingelesez eskainiz. **Ordezkariek** lortu genituen ikasturte hasieran baina ikasturtea aurrera joan den heinean beraien presentzia desagertu egin da. Ekainean Kirol Zerbitzua bere **web orrialdea** plazaratu zuela eta espero komunikazio bide eraginkor batean bihurtzea.
- **Kirol instalazioak gerturatzeko** kirol zerbitzua bilera pare bat izan ditu Eskoriatzako alkate eta kirol zinegotziarekin hainbat helburu lortzeko asmoz: Huheziko kirol zerbitzua aurkeztu Eskoriatzako kirol politika gertutik ezagutu eta akordioak bilatu kirol instalazioen inguruan. Esperientzia pilotu bezala langileentzat kirol instalazioetarako sarreretan %50eko beherapena lortu da. Horrez gain, ikasleei %30eko deskontua egin zaie Eskoriatzako udalean **kirol abonua** atertzeko. Zazpi ikaslek erabili dute.



- **Programa egokitu bat** egiten saiatu gara M.U.ko kirol taldeak bultzatuz, Munkana izeneko proiektu berriak proposatuz, 2. eskuko kirol material azoka webean argitaratuz eta txirringen proiektua bultzatuz.
- Gure **plan estrategikoa**, Eusko Jaurlaritza eta Unibertsitateen artean egiten ari garen EAEko unibertsitate kirolaren ekintza planera egokitu behar denez, plan hau garatutakoan gure unibertsitateara egokitu eta hortik aterako dira gure etorkizuneko Kirol Zerbitzua gauzatuko duten lan ildoak.
- Huhezik lehen aldiz antolatu ditu **heziketa fisikoaren inguruko jardunaldiak**. Kirol zerbitzua buru-belarri murgildu zen bertan, bai pertsonalki, bai arlo ekonomikoan ere. Arrakastatsua izan zen parte hartzea, hizlarien maila bikaina eta antolaketa kontuan hartuz gero.

Ikasleei zuzenduriko kirol-jarduerak

Txapelketa esparrua

Barne txapelketan guztira 65 ikasle aritu dira areto futboleant, futbol 11an eta musean.

Mondragon Unibertsitateko kirol txapelketara Huhezik oso partaidetza ona eraman zuten, 93 ikasle guztira (29 neska eta 64 mutil). Emaitzei dagokienez Huhezik futboleant, futbol zazpian, saskibaloian, eta emakumezkoen areto futboleant irabazi zuten. Primerako emaitzak.

Euskadiko Unibertsitate kirol txapelketa E.H.Uk antolatu zuten Bilbon eta Donostian. M.U.-k 115 ikasle eraman zituen eta horietatik 68 Huhezikoak izan ziren, 46 mutil eta 22 neska.

Inoiz baino handiagoa izan da M.U.k eraman duen ordezkaritza **Estatuko unibertsitate-kirol txapelketara**; guztira 29 kirolari izan dira eta horietatik 10 Huhezikoak. Besteak beste arku jaurtiketa, badminton, karatea, triatloia eta eskubaloia izan dira parte hartutako kirolak.

Gipuzkoako unibertsitateen arteko Herri Kirolen txapelketara M.Uko bi talde (bat GEP-koa eta bestea Huhezi-koa) maiatzaren 16an abiatu ziren Donostiako Atano III frontoian jokatu zen finalera. Finalean Tecnum, Deusto, eta M.U. aritu ziren lehian; lehen postuan berdinketa izan zen M.U.ko bi taldeen artean, eta egin zuten azken proban Huhezi izan zen garaile, laugarren aldiz jarraian. Irabazi zuten, bidaia baterako 6000 euroak eskuratu zituzten.



Irteera eta ikastaroak

Atal honetan 61 ikasle aritu dira ikasturtean zehar. Besteak beste masajeen, bela trabesian, surfean eta eskian hartu dute parte.

Sasoia hobetzeko atala

Arrasateko bi fitness-zentroetan 23 ikasle aritu dira spinninga, aerobika eta giharketa egiten, joan zen urtean baino ia hiru aldiz pertsona gehiago.

Ekintza osagarriak

- **Tau Baskoniaren partidak** ikustera bi alditan joan gara. Bata azaroaren 29an Moskuko C.S.K. ren aurka, eta, bestea, ekainaren 3an, ACBko finala, Bartzelonaren aurka.
- **Argazki Lehiaketaren** zazpigarren edizioa izan da; aurten-go lema: "Kirola mugimenduan". Huheziko parte hartzaile bakarra izan bada ere, berak eraman zuen argazki onenaren saria.
- **Kirol azterketa medikua** Huheziko bi ikaslek aprobeztatu dute.
- **Errealeko beteranoak eta M.U.ko ikasle eta langileen arteko futbol partida** bat antolatu zen Mondragon Unibertsitatearen 10.urteurrena zela eta. Huheziko sei ikaslek hartu zuten parte.

8. Euskara Huhezina

Euskara batzordea

Badira bi ikasturte HUHEZIK bere Euskara Batzordea eratu zuela. Horren beharra eta zergatia ulertzeko abiapuntuak dugu HUHEZIK bere buruari ezarri dion hizkuntza politika. Eta hizkuntza politika hori bi zutaberen gainean eraiki dugu: nolako hezkuntza eredia nahi dugun eta zein den gure harreman hizkuntza.

Hezkuntza ereduari dagokionez, badakigu gaur egun, ezinbestean, eredu horrek eleaniztuna izan behar duela. Irakaskuntza bideratzeko hiru hizkuntza erabili nahi ditugu. Baina nolako eleaniztasuna nahi dugu gure unibertsitatearentzat? Bistan da ez ditugula euskara, gaztelania eta ingelesa maila berean landuko. Titulazio bakoitzaren hezkuntza-proiektuak zehaztu beharko du zein leku egingo zaion hizkuntza bakoitzari curriculumaren baitan, beti ere kontuan izanda euskarazko formazioari denbora gehiago eta intentsitate handiagoa eskainiko zaiola.

Gure arteko harreman hizkuntzari dagokionez, argi daukagu: HUHEZIKren harreman-hizkuntza euskara izan dadin nahi dugu. Nabarmena da HUHEZIKo harremanetan euskara dela nagusi, ahozko zein idatzizko harremanei dagokienez. Irakasle ia guztiak eta ikasle guztiak euskaldunak izanik, askok eremu normalizatutzat jo dezakegu gure fakultatea hein handi batean. Hala ere, hainbat hutsune ere ikusten ditugu eta horiei ezin entzungor egin.

2006an Emun kooperatibari eskatu zitzaion HUHEZIKren diagnostiko zehatza egin zezan eta lagun ziezagun euskara plan egoki bat diseinatzen. Egindako diagnostikoan agertzen denez, gure fakultatean euskararen ezagutza %100ekoa zen eta erabilera %82koa. Eta ikusi zen bazirela eremu batzuk bereziki landu beharko genituzkeenak. Beraz, hutsune horiek konpontze alde-ara eratu zen Euskara Batzordea.

Partaideak

Eratu zenean argi ikusten zen partaideek fakultatea ordezkatu egin behar zutela nolabait eta erabaki zen bertan egon behar zutela ordezkatuta, ezinbestean, Zuzendaritzak, Langile Batzordeak, Hizkuntzen Departamentuak eta ikasleek.

Helburuak

Egindako diagnosis aintzat hartuta, bere gestio planean hainbat



helburu planteatu ditu eta horren arabera egitasmoak gauzatu ditu. Hona hemen azpimarratzeko batzuk:

1. Inplikatu langileak eta ikasleak euskararen normalizazioan: batzordearen aurkezpena egin du eta Xamar ekarri du hitzaldi bat ematera.
2. Hobetu langileon hizkuntza kalitatea: formazio-saioak antolatu ditu langileentzat.
3. Bermatu hizkuntzaren kalitatea fakultatean: zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eskaini die langileei.
4. Adostu eta garatu MUko euskara planen markoa: MUko Euskara Batzordean parte hartu du.
5. Lortu finantzabideak euskara plana kudeatzeko: HPSko euskara planentzako diru-laguntzetan parte hartu du.

Ikusi dugu, egin ahala, gehitzen eta aberasten doazela aukerak, ideiak eta lan-esparruak. Lanak aurrera darrai.

Euskara protokoloa

2007-2008 ikasturtean abian jarri genuen Euskara Protokoloa. Kontuan hartuta gure ikasleen profil soziolinguistikoa zertxobait aldatu dela, eta ikusita badela ikasle multzo bat hizkuntza-baliabideen premia duena, horiei zuzendutako ekimena da Euskara Protokoloa.

Irakasle Ikasketak bukatzen dituztenek eta Informazio eta Komunikazio Ikasketak bukatzen dituztenek hizkuntza-premia desberdinak dituzte, inondik ere. Biei eskatu behar zaie hizkuntza maila txukuna eta jasoa; hala ere, lanabes nagusi izango dute hizkuntza komunikazio arloan dihardutenek.

Hori dela eta, ikasketak zein diren, halako jomuga ezarriko zaie ikasleei.

IRAKASLE IKASKETAK: Hizkuntzen Portfolio Europarrean C1 mailarako ezartzen diren helburuak.

IKO: Hizkuntzen Portfolio Europarrean C2 mailarako ezartzen diren helburuak.

Ikasleak zein euskara maila duen jakin ondoren, konpromiso bat eskatuko zaio, eta horren probagarri, hitzarmena sinatuko du. Hitzarmen horretan zehaztuko da plangintza, alegia, zein epe-zein helburu bete behar duen. Plangintza horren jarraipena egingo du arduradunak, eta aldi-aldiaren diren emaitzen berri jakinaraziko die irakasleei.



Interesgarri irizten zaio ikasleak portfolio bat (paperezkoa zein elektronikoa) ireki dezan, eta gordailu gisa erabili. Egindako lan guztien biltoki gisa erabiliko du, eta ebaluazioa (arduradunarena edo ikaslearena berarena) egiteko tresna egokia izan liteke.

Bestalde, txantilo bat prestatuko da ikasleek autoebaluazioa egin dezaten, eta arduradunak ere berea egin dezan. Txantilo horrek markatuko du bai ikasleak eta bai arduradunak edo irakasleek nola ikusten duten ikaslearen aurrerabidea, helburuak betetzen ote diren, epeetara ote datorren...

Eta horren guztiaren euskarri Mudle plataforman sortutako 'ikastaroa'. Hor izan dituzte dokumentu-biltegia, ariketak, laguntza-tresnak, euskaraz ikasteko baliabide eta tokiak...

Itzulpen eta zuzenketa zerbitzua

Huhezik badu testuak itzultzeko edo zuzentzeko zerbitzua. Horretan dihardu erakundeko irakasle batek, eta, horrez gain, kanpoko itzultzaile baten laguntza ere badu. Era guztietako testuak lantzen dira, bai akademikoak, alegia, eskolara zuzendutakoak, argitaratu behar diren artikulak, Jakingarriak eta Mendeberrri aldizkarietako artikulak, bai eta administrazio eta kudeaketa zerbitzuetako ohiko testuak ere.

9. Erakunde kudeaketa orokorra eta zerbitzuak

Administrazioa eta zerbitzu orokorrak

Administrazioak eta zerbitzu orokorretako departamentuak laguntza ematen diete gestio unitateei ondoren agertzen diren arloetan:

- Irakaskuntzan.
- Dokumentazioan.
- Ekonomia eta finantzetan.
- Mantenuan.
- Teknologia zerbitzuetan.

Horretaz gain, departamentuari berari dagozkion gaiak ere garatzen ditu, kudeaketari lotutako kalitatearen inguruan, teknologia zerbitzuetara egokitzearen inguruan eta beste hainbatetan. 2008-2009 ikasturteari dagokionez, ondorengo puntuak dira aipagarrienak:

- Titulazio berrien diseinuan laguntzea.
- Idazkaritza birtualaren garatzea.
- Instalazio eta ekipamenduak hobetzea.
- Liburutegia, ezagutzaren etengabeko informazio hornitzailea dena, unibertsitate mailako zerbitzu integrala bihurtzea.
- Huhezi-ko egitura eta azpiegitura guztien laguntza administratibo eta finantzarioa bideratzea.

Bokalak: ELENA ERRASTI
BELEN KORTABARRIA
MAIDER OTAMENDI
PILI SAGASTA
AGURTZANE MARTINEZ
AGURTZANE BIKUÑA
JOKIN LENIZ
AMAIA ETXEBERRIA
MADDI ELORZA

Gestio organuak

Zuzendaritza Batzordea:

Dekanoa: NEKANE ARRATIBEL
Giza Zientzietako zuzendaria: AITOR ZUBEROGOITIA
Hezkuntza Lerroko zuzendaria: MATILDE SAINZ
Ikerketa 3. lerroa: IÑAKI GARCÍA
Hezi institutuko zuzendaria: MARIAM BILBATUA
Lanki ikertegiko zuzendaria: JON SARASUA
Administrazio eta Finantzaketako zuzendaria: AINHOA LETURIAGA

Errektore Kontseilua:

Lehendakaria: JOSE ANTONIO ALUSTIZA
Lehendakari ordea: JOSEBA AZKARRAGA
Idazkaria: ANE URIZAR

10. Enpresa eta erakunde laguntzaileak

...Eta Kitto! Euskara Elkartea

Abandoko Berritzegunea

ADSI Fundazioa

Aita Menni Ospitalea

Aita Orbiso Ikastetxea

Alejandro Altuna JMA

Alfa Lan S.A.

Alzaga Ikastola

Ampo, S.Coop

Aransgi

Arizmendi Koop. E.

Armentia Ikastola

Arrasate Herri Eskola

Arteman Komunikazioa S.L.

Aspace

Ategi S.Coop.

Athlon Koop. E.

Auzo Lagun S.Coop

Baikara Guraso Elkartea

Baleuko S.L.

Barakaldoko Berritzegunea

Berbaro Euskera Elkartea

Bermeo Ospitalea

Bertsozale Elkartea

Bihotz Gaztea Ikastola

Bizkaiko Ikastolen Elkartea

Boluntzarreta Elkartea

Busturialdeko Irrati Telebista

Debagoieneko Mankomunitatea

Deprozak S.L.

Dikar S. Coop

Domingo Agirre Eskola

EIZIE

Elgoibarko Ikastola

Emun Koop.E.

Eroski Koop.e.

Etxaurren Ikastola

Euskal Irrati Telebista

Euskaltel

Ezai Fundazioa

Fagor Arrasate

Fagor Ederlan

Fagor Electrodomésticos S. Coop

Fagor Industrial S. Coop

Gautena

Gerediaga Elkartea

Gernikako Berritzegunea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Goierriko Ikuskari S.L.

Grupo Proyección-Cambio de Imagen S.L.

Hostoil Produzioak S.L.

Ibaiondo Eskola Publikoa

IES Gernika BHI

Ikasbidea Ikastola

Jakintza Ikastola

Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Lasalle Legazpi

Lekeitioko Eskola Publikoa

Leonardo da Vinci

Marianistas Ikastetxea

MCC

Mundu Solidarioa Helburu

Mundukide Fundazioa

Mungialde Partzuegoa

Munitibat LHI Ikastetxea

Nuevas Clases Educativas Fundazioa

Olabide Ikastola

Orkli S.Coop

Ortzadar Zentroa

Pausoka Productions S.L.

Ramon Bajo Eskola Publikoa

Residencia Calzada Fundazioa

San Jose de Calasanz

San Patricio Eskola

Seaska

Segura Irratia S.A.

Sociedad de la Promoción de la Economía Social S.A.

Suministros Ugarte

Txantxiku Ikastola

Txurdinagako Berritzegunea

Ulma Forja S.Coop.

Universidade Federal do Paraná

Urolako Ikastola

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Zornotza Institutua

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

Gizabidea Fundazioa



Erakunde publikoak

ESKORIATZAKO UDALA
ELGOIBARKO UDALA
ARRASATEKO UDALA
BERGARAKO UDALA
IGORREKO UDALA
IRUNGO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- Kultura Zuzendaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila
- Kultura Saila
- Euskal Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE-IVAP)

GOBERNU ZENTRALA
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa

EUROPAKO BATZORDEA



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA
HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

FACULTAD DE
HUMANIDADES Y
CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

Dorleta, z/g
20540 ESKORATZA
Tel. 943 71 41 57
Fax 943 71 40 32
sarrera@huhezi.edu

www.mondragon.edu



Entitate laguntzailea
Entidad patrocinadora

